




GURUTZE ZUBELDIA ▶ TOLOSA 750. URTEURRENA FUNDAZIOKO KOORDINATZAILEA

«Denon ekarpenak aintzat hartu eta parte-hartzea dugu xede»

TOLOSA ▶ 750. urtemugako ekitaldietan «jendea erakartzea» espero dutela dio koordinatzaileak

IRAILAREN 13A ▶ Ekitaldi ofizialaz gain, denetariko ekimenak prestatu dituzte urteurren egunerako ▶ 3



Gurutze Zubeldia. N. LATABURU

Belgikatik etorritako erromesek eskualdean ere hartu dute 'ostatu'

ALTZO ▶ Loiolatik Jabiererako bidea egingo dute; herenegun Altzoko frontoian egin zuten lo, eta aurreko egunean Bidegoiangoan ▶ 2



Anjel Arrospide. I. TERRADILLOS

ANJEL ARROSPIDE ▶ AIZKOLARIA

«Gazte asko dator, baina ez dituzte nagusien markak hobetzen»

Txapeldunen Ligan ari da leaburuarra ▶ 6

E. EZEIZA



ALEGIALDEA ▶

Herritarren ideien bila Agenda 21 prozesuan

Parte-hartzea eskatu du Bozuek ▶ 5

LEITZA ▶

Metazirik irabazi du eskolako txapelketa

Steaua menderatu zuen luzapenean ▶ 7



Futbolari guztiak, elkarrekin, lehia bukatutakoan. J. ASTIBIA

LEITZA ▶

Bigarren mailako finalean da Rekondo

Olano txapelketatik kanpo geratu da ▶ 7

ALTZO ▶ GIZARTEA



Pixkanaka Altzoko frontoira iristen joan ziren, eta bertan lo egiteko lekua prestatuta zuten. E. EZEIZA

ESTI EZEIZA

Motxilak bizkarrean, galtza motzak eta mendiko botak soinean, horrela iritsi ziren atzo iluntzean 55 erromes Altzora. Urtero bezala, Belgika aldetik etorri dira Loiola eta Jabier bitarteko bidea egiteko. Fedea oinarritzat hartuta, beraien afizioetako batekin uztartu dute, hau da, bidaiatzearekin.

Kamioi handi bat aurretik zutela etorri ziren eskualdera. Orain dela hiru egun abiatu ziren Loiolatik, eta beste bederatziko bidea geratzen zaie Jabierara arte. Aurrikuspenen arabera, hilaren 26an amaitzea espero dute.

Goizero erritual berdina egiten dute flandestar hauek: 06:00ak aldera jaiki, gosalduta, otoitz batzuk errezatu, eta prest, ibilaldiari ekiteko. 50 urteren bueltan dabilta gehienak, baina sasoirik ez zaie falta: egunero, 20-30 kilometro egiten dituzte oinez. Iluntzeko zortziak aldera, afaltzen ari zirela topatu zituen HITZAK, plastikozko mahaietan eserita, eta abestuz ari zirela. Aurreko gaua Bidegoiango frontoian igaro zuten, eta hurrengoa, Azkarateko elizan pasatuko dute, horrela, herriz herriz, helmugara ailegatu arte.

Zakuak lurrean bota, arropak sareetan zintzilikatu, eta bainugela berezi batzuk atonduta, etxean bezala ibili ziren belgikarrak. Bederatzi pertsonetako 5 taldetan antolatuta daude, bestalde 10 persona ari dira logistika lanetan, otor-

Belgikatik erromes, Euskal Herrira

Loiolatik Jabiererako ibilbidea egitekoak dira hamabi egunetan



Arropak garbitu eta lehertzeko, zintzilik jarrita. E. EZEIZA



Afaltzeko garaian, taldetxoetan banatu ziren. E. EZEIZA

duak-eta prestatzeko. Hauek kamioi batean, ibiltariak baino lehenago iristen dira herrietara, eta hauek ailegaterako dena atonduta izaten dute.

Antolatzaile lanetan lau jesuita ari dira, hauek 1992tik dihardute bidaia hau antolatzen, eta urtero bidaia bera egiten dute. Parte-hartzaileek, berriaz, lehendabiziko aldia dute. Horietako bat Hugo da, eta bere esanetan, «zorte handia dugu, horrelako parajeetan ibili ahal izan dugulako». Bestalde, oinez ibiltzea eta fedea nahasketa bikaina dela uste du, oharkabean igarotzen baitzaie denbora. Patsadan, hitz egiteko eta jendea ezagutzeko aukera ematen die bidaia honek. Hala, antolatzaileen arabera, «erromesaldi honen helburuetako bat bakoitzak bere burua ezagutu ahal izatea da». Horretarako, goizetan, espirituarekin lotuta dago Europar hauen bidaia, eta eguneroko bizitzan Jainkoaren presentzia izatea dute xede. Azken batean, oporrak igarotzeko beste modu bat da hauena.

Euskal Herriarekiko jakinmina ere badute erromes hauek. Bidaian bi egun besterik ez badaramatzate ere, euskaraz hitz bat edo beste ikasi dute.

Egun hauetako tenperatura altuek ez dituzte beldurtu, eta beroari aurre egiten jakin dute. Honela, atzo goizean, gustura eta umorez, Tolosaldea alde batera utzi, eta beraien ibilbideari ekin zioten gogotsu, Nafar lurretara zuzenduz.

LIZARTZA ▶

Agirrebarrenaren epaiketara joateko autobusa

Etzi, Aitor Agirrebarrena preso lizartzarra epaituko dute Madrilén. Hala, hara joateko autobusa Tolosatik aterako da. Beraz, joan nahi duenak Intxurre tabernan eman beharko du izena. Bestalde, Iñigo Guridi billabonatarak lekuko gisa deklaratu du.

KZ GUNEA ▶

Belauntzan eta Leaburun, bihar, tutorearen bisita

Bihar, tutorearen bisitak eta mintegiak izango dira Leaburuko eta Belauntzako Kzguneean. Lehenengoan, tutorearen bisita 09:00etatik 13:00etara izango da. Mintegia, berriz, 10:00etatik, 11:00etara izango da, *Jarraitu zure gustoko kirola* izenburupean. Belauntzan, berriz, 16:00etatik 20:00etara izango da tutorearen bisita, eta mintegia 17:00etatik 18:00etara. Azken honetan, postal bat nola bidali ikasiko dute.

IRURA ▶

Agenda 21eko hurrengo bilera gaur izango da

Agenda 21eko ekintza planaren bigarren bilera egingo dute gaur Irurako udaletxean. Hitzordua 19:30ean izango da, aurreko astean bukatu ez zen bileraren jarraipena izango da gaurkoa.

VILLABONA ▶

Garagardo Azokako txartelet badute saritu bat

Irrintzi elkarteak antolatuta dago Villabonako Garagardo Azokako zenbaki saritua 2.004 da. Zenbaki saritua duenak 699 05 82 41 telefono zenbakira deitu behar du, edo Tolosako Barcelo bidaia agentziara azaldu. Bestalde, antolatzaileak gustura daude Garagardo Azokaren emaitzekin. Beraien helburua aurreko urtekoa mantentzea zen, eta azkenean zertxobait gehiago igo dira salmentak. Jende ugari joan da beraz, Txerminera, garagardoa dastatzera.

GURUTZE ZUBELDIA ▶ TOLOSA 750. URTEURRENA FUNDAZIOKO KOORDINATZAILEA

«Guztion ekarpenak aintzat hartzen ditugu gure xedea parte-hartzea baita»

Gurutze Zubeldia Tolosa 750 Fundazioko koordinatzaileak «jendea erakartzea» espero dutela aitortu du, urteurrenaren harira antolatu dituzten ekitaldietan



N. LATABURU

NOELIA LATABURU

Irailaren 13a gero eta hurbilago dago. Bi hilabete eskas geratzen dira Tolosa bere 750. urtemugara hel dadin. Lan urte gogorra izan da Tolosa 750. Urteurrena Fundazioarentzat eta, «jendearen parte-hartzea bultzatzeko» helburuz eginiko lanak bere fruitua emango du egun honetan. Gurutze Zubeldia (Tolosa, 1963) fundazioko koordinatzailea HITZarekin solasean aritu da urteurrenaren nondik norakoan gainean. **Iragan astean bilera egin zenuen komertzioetako ordezkariekin. Zer landu zenuen bertan?**

Batik bat irailaren 16ko ospakizunaren berri eman genuen; urteurrena 13an den arren, larunbatean ere egingo ditugu ekitaldiak, komertzioek ere parte hartzeko.

Zeintzuk izango dira, bada, ekitaldi horiek?

Batetik, ekimen bat proposatu genien eta adostasuna erakutsi ziguten: telazko poltsak banatuko dizkiegu merkatarien bi elkarteentzat, irailetik aurrera banatuko dizkietena bezeroei. Eta, bestetik, *Esperientziak* izeneko historiari buruzko proiektuaren baitan, XX. mendeko historia berreskuratzea

duena ardatz, argazkien digitalizazioa egin genuen. Hemendik 50 argazki ezberdinetako 10 serie aterako dira eta banatuko dira dendetan. Eskainiko zaizkie kartelak tamaina ezberdinekin, denda bakoitzak Tolosan bildutako argazki diferenteak izango dituelarik erakuslehoetan.

Eta urteurrenaren presentzia non egongo da?

Hain zuzen ere, urteurrenaren presentzia gutxi ikusten zutela transmititu zuten bileran; horrexegatik beste kartel batzuk ere banatuko ditugu urteurreneko logoarekin, beraiek hala eskatu ziguten eta. Guretzat oso garrantzitsua da beraiek ekarpenak egitea; guztionak hartzen ditugu aintzat gure xedea parte-hartzea baita. Hala, denda guztietan banatuko ditugu. Jendea erakartzen badugu egun horretan, herriko komertzioak aprobetxa dezatela.

Eskaparatismo ikastaroa ere antolatu zenuen eta arrakasta handia izan zuen.

Bai, komertzioarekin inplikazioa lortu nahi izan genuen. Federazioak eskaparatismoaren ideia proposatu zigun eta deialdia egin genien komertzioetako guztiei. Irailko ospakizunari begira antolatu genuen. 15 lagunentzako lekua

zegoen eta 45 eskaera jaso genituen, beraz, inplikazio handia erakutsi zuten.

Antolatutako beste ikastaroek ere erantzunik izan dute?

Tolosako historiari buruzkoa ere egin genuen, Kutzak urtero antolatzen dituen ikastaroen baitan. Gaia eta irakaslea zehaztu genituen; ballabideak beraiek jarri zituzten eta Fundazioa komunikazioaz arduratu zen. Hiru hilabetez iraun zuen ikastaroak, Juantxo Agirrerren eskutik, eta parte-hartzea ikaragarria izan zen.

Irailaren 13ra bitarte ekitaldi gehiago izango al dira?

Bai, oraindik geratzen da ekitaldirik. Esaterako, ostiral honetan Koldobika Jauregik euren eskulturen erakusketa inaurgaratuko du. Astebete beranduago, hilaren 28an, Leidor areto berriak lehen kultur egitaldia hartuko du, Euskadiko Gazte Orkestraren emanaldia erekin. Bestalde, abuztuaren Donostiako Musika Hamabostaldia ere garatuko da Tolosako gune ezberdinetan.

Nola definituko zenuke, bada, herritarren parte-hartzea?

Tolosarrentzat urteurrena erreferentzia da eta asko izan dira euren proposamenak luzatu digutenak; argi dago kan-

potarrek ez dutela berdin sentituko.

Uztailerako iragarritako makrokonzertua zertan datza?

Apustu gogorra egin zen Manu Chao ekartzeko. Apirilera arte itxaron genuen bere erantzuna jasotzeko, baina Espainian birarik egingo ez duenez ezinezko izan zen. Esperantzak ez genituen galdu baina azkenean ezin izan da. Izugarriko pena izan da; aukera polita zen, halaber, Berazubiko instalakuntzak moldatzeko. Hala ere, goi mailako taldeak hiriburutik kanpo ekartzeko zaila da.

Urteurrena ospatzen duten beste herriekin harremanetan jarri al zarete?

Bai, Segurako ordezkariarekin bildu gara; harremana oso ona da, baina haiek historikoki enfokatu zuten urteurrena eta guk nahiago izan dugu aitzakiarekin bestelako berrikuntzak barneratzea.

Zein helbururekin sortu zen fundazioa?

2004an sortu zuen Udalak gutxiengo patronato batekin, eta helburua herritarren parte-hartzea bultzatzea zen. Patronato guztia osatzerakoan ekimenei ekin genion, 2005ean. Lan mahaia sortzen hasi ziren eta bestelako proposamenak ere jaso ditugu.

Zaila izan al da lana?

Ekitaldi asko herritarren ekimenak izan dira. Nire lana gehienbat gestioa izan da. Lan mahaien ekimenak kudeatzea izan da nire funtzioa. Proposamenak behin esku artean izanda errazagoa da lanean hastea.

Zenbat lan mahai daude?

Bereziki, historiako, musika-koa eta kiroletakoak funtzionatu dute. Bestelako parte-hartzea indibidualagoa izan da.

Zer espero duzue urteurrenaren egunaz?

Gustatuko litzaidake jendeak antolatu ditugun ekitaldietan parte hartzea eta gustura egoatea. Gune ezberdinak jendez gainetza ikusi nahiko nituzke.

Urteurrena, ekitaldiz blai

Irailaren 13an Tolosa festaz jantziko da bere urteurrena ospatzeko. Asteazken horretan denetik izango da gurean: *Esperientziak* proiektuaren baitan, ospakizuna egingo dute Triangulo plazan. Ondoren, kanpai-iraulteta izango da Santa Maria parrokian. Udaletxean, bien bitartean, ekitaldi instituzionala egingo dute.

Ikasleentzako ekitaldirik ere izango da; txikienentzat (Lehen Hezkuntzakoak), Euskal Herria plazan globo aerostatikoa jarriko dute, «helburu ludikoarekin». Triangulo plazan, berriz, Tolosari buruzko galderak egingo dituen Trivial interaktiboarekin jolasteko aukera izango dute. Eta helduenek, Tolosako begiratokiak bisitatuko dituzte, ondoren lan bat burutuko beharko dutelarik.

Gualdean, su artifizialak jaurtiko dituzte Zumardi Txikian eta Trianguloan ikusentzunezko ikuskizuna eskainiko dute.

Hilaren 15ean ere, ostiralarekin, izango da zer gozatua: Lopez Mendizabal plazan Manantial Folk izango da entzungai; Leidor aretoan Kepa Junkera eta Plaza Berrian Berritxarrak.

Eta hurrengo egunean, larunbata, goiz zein arratsalde Tolosa ekitaldiz beteko da. Graffiti Lehiaketako finala jokatuko da, esaterako, Fronton kafetegiarekin alboan; egun guztian zehar buruhandi eta erraldoien kalejirak alaituko ditu txokoak. Hau guztia, nola ez, txarregain doinuez lagunduta. Musika ere izango du tartetik eta Osakorri eta Kukubiltxo ariko dira Leidor areto eraberrituan. Eskalada erakustaldia ere burutuko dute Alpino Uzturre elkarteek. Asteazkenean bezalaxe su artifizialak izango dira ikusgai eta, ondoren, Tolosako orfeoak 750. Urteurreneko kontzertua eskainiko du Ainhoa Artetarekin batera, eta Tolosako himnoaren estreinaldia egingo dute bertan. Dagoeneko hasi dituzte kontzertu honetarako entseguak. ◀

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

ASTEASU ▶ SANTAMAÑAKO JAIAK

Omenaldia eta beroa

Giro ederra azken egunean, herri kirolak eta Lajari eta Landakandari egindako omenaldia tarteko

IMANOL GARCIA

Ez zegoen berotasuna gonbidatu beharrik atzo, Santamaña jaietako azken egunean. Batek, eguraldi beroa baino sargori zegoen baselizaren ingurua. Eta bestetik, omenduak izan zirenak aski maitatuak dira ingurumari hoietan: Laja eta Landakanda trikitilariak.

Omenaldia baino lehen, hamaitetako oparoa eskaini zieten jubilatuei. Elkarrekin gain, elizan bertan ere jarri zituzten mahaia. Horren ondoren bailarakoen arteko herri kirolak egin zituzten. Aurten, baselizaren azpiko zelaietan egin zituzten. Lau segalari aritu ziren hasieran erakustaldia emanez, alemaniar erara. Gero, lehiaketarako sortutako bi taldeetan sartu ziren, eta berriro esfortzu betearen aritu ziren eguzkipean.

Segalariak beraiek eman zieten hasiera lehiari. Binaka aritu ziren eta beren lursaila amaitzean korrikalariei eskua ematen zieten. Lasterkariak lursail osoari hiru bira eman

ondoren, lokotx biltzaileen txanda izan zen. Hauek amaituta, txingalariak hartzen zuten lekukoa eta, azkenik, harri-jasotzaileen txanda izan zen. Horrela, bi alditan egin zuten. Jende ugari izan zuten begira eta giro onean egin zituzten probak, tranpa txiki batzuk tarteko.

Indar erakustaldiaren ondoren, trikitilari ezagunei egindako omenaldia etorri zen. Lajak 28 urte eta Landakandak 25 urte daramatzate Santamaña alaitzen eta urte horiengatik guztiengatik omendu zituzten. Txapela eta egurrezko plaka eskaini zieten Santamañako elkartekoei eta asteasuarrek orokorrean eta Olarreaga Goiko jatetxeak ere plaka eman zien. «Oso pozik gaude omenaldiarekin», azaldu zuten bi trikitilariak. «Hemengo jendea oso jatorra da, eta beti hartu gaituzte oso ondo». Olarreaga Goiko jatetxean egindako ardi-jateak gogoratu zituzten ere: «140 lagun biltzen dira eta sekulako giroa izaten da».



Laja eta Landakanda trikitilariak, omenaldian jasotako txapela eta plakekin. I. GARCIA



Gazteenak lokotxak biltzen jardun zuten. I. GARCIA



Hamaitetako egitera jende ugari bildu zen Santamañako elkartearen. I. GARCIA



Segalariak erakustaldi bikaina eman zuten. I. GARCIA

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da lau orduz lan egiteko. Tolosaldean. Eskarmentatua. Interesatuak deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da Tolosaldeko taberna baterako. Lanegun osorako. Interesatuak deitu 677 32 99 34 telefono zenbakira.

▶ TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Inkesta. Jende ugari dagoeneko oporretan dago eta beste asko laster hasiko da. Zer aukeratzin duzu zuku ostatu hartzeko?

- ▶ Landa-etxea.
- ▶ Hotela.
- ▶ Kanpina.
- ▶ Apartamendua.
- ▶ Aterpea.

Sartu webgunean eta eman zure iritzia.

AGENDA 21 ▶

Pausoak emateko herritarren ideiak eskatu ditu Bozuek

Udaltalde 21eko herrietan jasotako erantzunekin osatutako diagnostikoaren zirriborroak udazkenean aurkeztuko dituzte



Txindoki inguruko hainbat herri daude Bozue Udaltalde 21en. Irudian, Txindoki mendia bera. HITZA

ERREDAKZIOA

Otsailaz geroztik, lanean dabil-tza Abaltzisketa, Altzo, Amezke-ta, Baliarrain, Ikaztegieta eta Orendain herrietako Udalak Tokiko Agenda 21 prozesuak aurrera ateratzeko.

Bozue Udaltalde 21en lehen pausoa, herri bakoitzaren diagnostikoa erredaktatzea, hain zuzen ere, ia amaitua dago; herriko gizartea, ekonomia eta ingurumena aztertuz, datu objektiboak bildu dituzte; herritarren ikuspegia, elkarrizketa edo talde-bileretan lortu-tako iritziak dokumentuan txertatuz osatu dute.

Diagnostikoak ez daude oraindik itxita, ordea, prestatu-tako zirriborroak udazkenean aurkeztuko baitituzte sei uda-lerrietan. Herri bakoitzean bat-zar irekita deituko dute, eta bilera honetan diagnostikoaren zirriborroan herritarrek ikus-ten dituzten hutsune, gabezi eta arazo garrantzitsuenak izango dituzte hizpide. Herri

batzarretako emaitzak txertatu ondoren, diagnostikoak erabat osatuta geldituko dira, eta uda-len osoko bilkuretan behin be-tiko onspena emango diete.

Ondoren hasiko dira herri bakoitzean datozen urteotan aurrera atera nahi diren ekin-tzak jasoko dituzten herri pla-nak definitzeko lanak. Udazke-neko herri batzarra baino le-hen, edozein herritarrek prozesuari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, edo eta diagnostikorako baliaga-riak izan daitezkeen ekarpe-nak egin nahi baditu, ondoren-go bideak erabil ditzake: alde batetik, Amaia Aramendi Toki-ko Agenda 21eko teknikaria-rengana jo. Asteko egun bate-an egoten da udal bakoitzean; beraz, udaletxera joanda hare-kin harremanetan jar daitezke herritarrek. Beste bidea, posta elektronikoko bidez mezua bidal-tzea da. Hauxe da, hain zuzen ere, informazio gehiago jaso-tzeko helbidea: bozue21@tolo-mendi.net.



Abaltzisketako buzoia. HITZA

Udaletxetan buzoiak

Bestalde, herri guztietan buzoi bat jarri dute, idatzizko propo-samenak egin nahi dituztenek erabiltzeko, eta bertan ideia berriak emateko. Herri bakoit-zeko udaletxean daude jarrita. Honen helburua herritarren ideiak jasotzeko bidea zabal-tzea eta erraztea da.

ALEGIA ▶

Miren Ortegaren margolanak Jubilatuenean

Uztaila osoan zehar Miren Ortega beasaindarraren margolanak izango dira ikusgai Alegiako Jubilatuen tabernan. Egunero irekita dago, astelehenetan izan ezik.

ALTZO ▶

Ikastaroetako informazioa emateko bilera

Altzon 2006-2007 ikasturte-rako ikastaroetan izena ema-teko epea amaitu dela-eta, bihar, hilaren 20an, bilerara deitu dute. Udal liburutegian izango da, arratsaldeko hiru-retan. Interesa duen edo-nork parte har dezake hitzor-duan.

ALTZO ▶

Festetako zikiro jaterako txartelak salgai

Altzon hurrengo astean fest-ak izango dira. Horregatik, besteak beste, zikiro jatea antolatu dute hilaren 28an, ostirala, beste urteetan egin ohi duten bezala. Txartelak salgai daude dagoeneko Arandia jatetxean, 18 euro-ren truke.

BIDEGOIAN ▶

Eztiolakoei laguntzeko jaialdia hilaren 29an izango da

Afaria, herri kirolak, bertsolariak... izango dira; etzi da txartelak erosteko azken eguna

N. URBIZU

Bidegoiango Eztiola baserria duela ia bi hilabete erre zen. Bertako bi familia kaltetuei laguntza emateko jaia prestatu dute hilaren 29an Bidegoianen. Jaialdia 19:00etan hasiko da, herri kirolak eta saioarekin.

Harri-jasotzaileak ere izango dira. Ondoren, bertsolariak izango dira: Peña-garikano, Loidisaletxe eta Arkaitz Zelaia. 21:00etan, bestalde, frontoian egingo dute afaria, herriko soinu-jole eta bertsolariek alaituta.

1989. urtetik beherakoek 25 eurotan dituzte afarirako txartelak, eta beste guztiek, aldiz, 15 eurotan.

Txartelak erosteko azken eguna hilaren 21a izango da, etzi. Bestela ere, erretako baserriari laguntzeko bada diru kontu zerbaki bat: 2101 0067 2001 2549 8733. Beste inorrek informazio gehiago eskuratu nahiko balu, Bidaniako Kontsejura deitu deza-ke (943 68 10 03).

EUSKAL JAIA
BILLABONA 2006

Uztailak
29
Larunbata

18:30etan Egardia dantza jiraen laguntzarekin
19:00etan ERROMERIA
Añabazaren Añabak & Juan Mari Beltran
21:00etan Afari herrikoia plazan: **Zikiro Jata**
22:00etan ERROMERIA, Tapia eta Leturia

Garaiko euskal jantziekin parte hartzera animatzen zaituztegu
Zikiro jaterako txartelak salgai ondoko lekuetan: 20€

ANJEL ARROSPIDE ▶ AIZKOLARIA

«Gazte asko dator atzetik, baina ez nagusien markak hobetuko dituztenik»

Leaburuarra aizkolari onenak biltzen dituen Urrezko Aizkolarien Txapelaldun Ligan ari da lehiatzen



I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Urrezko Aizkolarien Txapelaldun Ligan murgildurik dabil Anjel Arrospide (Leaburu-Txarama, 1956). Egungo punta-puntako aizkolaria biltzen dituen txapelketaz, eta bertan berak dituen helburuez hitz egin du Hitzarekin.

Txapelaldun Ligako lehen-dabiziko bi jardunaldiak jokatu dituzue. Gustura emaitzekin?

Bai, oso gustura nago. Lehenengoan Larretxea eta Mindegia nituen arerio eta nik irabazi nuen; bigarrenan, berriz, Nazabal izan zen garaile, ni bigarren eta Mindegia hirugarren. 18,5 puntu batu ditut denera.

Bigarrena igandean jokatu zen Zornotzan. Nolako saioa izan zen?

Saioaren hasiera nahiko ona izan zen, baina proba luzearekin batera behera etorri nintzen pixka bat. Dena den, nahiko ondo aritu nintzen. Gainera, kontuan hartu behar da bezperan Alegian aritu nintzela, eta errekueratzeak ia astirik ez nuela izan. Horrek eta egiten zuten beroak asko zaildu zuten saio on bat egitea.

Noiz jokatu duzue hurrengo saioa?

Hirugarren saioan ni ere ariko naiz. Hilaren 25ean izango da, Gasteizen.

Zenbat saiok osatzen dute Txapelaldun Liga?

Zortzi edo hamar saio izango dira. Beraz, uda osoan ariko gara batean eta bestean aizkolariekin lehiatzen.

Nazabal, Mindegia, Larretxea, Olasagasti eta zu. Maila goreneko aizkolaria zabilzate lehian. Nor da faborittoa?

Nazabal da punta-punta dabilena. Sasoiko dago, eta txispas gehiago nabari zaio. Gaiantzeko gaitetik dagoela esango nuke. Beste laurol maila bereetsua dugu.

Nola entrenatzen duzue zeure burua?

Etxean, denbora librean entrenatzen dut, gehienbat zutikakoan eta banakako motzetan. Bestela, erakustaldiak direla eta ez dagoela etenik esan behar.

Nagusiek duten eskarmen-tua, ala gazteagoek duten azkartasun hori. Zer da garrantzitsuagoa?

Eskarmen-tua garrantzitsua da, gazteagoek dituzten ezaugarriak are gehiago. 50 urte ditut nik eta hori nabaritzen da, batez ere zu baino gazteagoekin lehiatzen ari zarenean.

Onenak biltzen dituen txapelketa honetan, ordea, ezin esan gazteenek lekua dute-nik.

Gazte asko dator atzetik, baina ez dago nabarmentzen denik; hau da, nagusien markak hobetuko dituztenik ez dago. Nire ustez, indarra izatea beharrezkoa da aizkolarientzat, eta 90 kiloren bueltan ibiltzea ere bai. Hori ez da ikusten gaur egungo gazteetan.

Luzerako dugu, beraz, Arrospide txapelketetan.

Nahiko ondo ikusten dut neure burua, beraz, minik sentitzen ez dudana artean jarraituko dut. Gainera, adin hauetan oso arriskutsuak izaten dira lesioak, beraz, halakorik ez gertatzea espero dut.

Irabazitako sarietan pisu gehien duena zein da?

Sei Euskal Herriko Txapelketa jarraian irabaztea oso garrantzitsua izan zen niretzat.

iragarki laburrak ▶



Alkiza. Familia bakarrekako txaleta, 4.000 m²ko lursailarekin, hiru solairurekin. Bakoitzak 120 m² ditu.

Andoain. Santa Kruz auzunea, 80m²ko bi etxebizitza erreformatuak, kanpoaldera, igogailuarekin, eta bista ederrekin.

Andoain. 90m²ko etxebizitza eraberritua, sartzeko moduan, kanpoaldera eta eguzkitsua.

Baribar. Borda 2.000 m²ko partzelan. Berritua.

Lizartza. 30.000 m²ko lursaila.

Bifamiliarra eraikitzeak aukera.

Nekazaritza ustiakuntzarekin bi etxebizitzentzat.

Belauntza. Bifamiliarra, bi solairu eta 270m²ko lur eremuarekin.

Berastegi. Familia bakarrentzako txaleta, 3.500 m²ko lur eremuarekin.

Donostia. Antigu, Eskolta Real. Etxebizitza eraberritua, kanpoaldera.

Hormilla (Errioxa). Najeratik 3 kilometrorra. Etxebizitza adosatua, lorategiarekin, terrazarekin eta igerilekuarekin. 160.000 euro.

Irura. Laskibarreko zonaldea, hiru logelako etxebizitza, garajearekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 150 m²ko etxebizitza, egoera ezin hobean, garajea aukeran.

Tolosa. Pablo Gorosabel, eraikuntza berriko azken apartamentua, 65 m² erabilgarri.

Tolosa. Pablo Gorosabel, logela bakarrekako apartamentua, garajea hartzeko aukerarekin.

Tolosa. Zabalarreta, 3 logelako etxebizitza, egongela, sukalde, terraza, bainugela, komuna, trastelekua eta garaje itxiarekin.

Tolosa. Araba etorbidean, 4 logelako etxebizitza, egongela, sukalde, komuna, bainugela, terraza, 25 m²ko lokala eta garajea.

Tolosa. Errementari kalean, 3 logelako atikoa, egongela, sukalde eta bainugela. Berritua.

Tolosa. Pablo Gorosabel, 50m²ko bulegoa.

Tolosa. Belate pasealekuan, trasteleku berriak, argia, aire erauzgailuak 9.480 eurotatik.

Tolosa. Usabalen, 350 m²ko pabiloia, alokairuan abuztutik aurrera. Bi zubi garabirekin, bulego, bainugela eta abarrek hornitua.

Tolosa. Pablo Gorosabel, 50m²ko bulegoa.

Tolosa. Maituna lokal zaharrearren 15 garage itxi salgai aurki.

IBARRA ▶ KULTURA



Herriko jaietan, aktore

Erredakzioa ▶ Sanbartolomeetan Hauspoa elkarteak antolatzen duen herri antzerkian parte hartu nahi dutenek asteazkenean 20:00etan Alurren dantza lokal zaharrena bertaratutako animatzen dituzte. Egun horretako festan parte hartzeko asmoa dutenek istorioaren berri izan dezaten, hilaren 26ko entsegura bertaratu daitezten deialdia egiten diete. UDAL FOTOTEKA

LEITZA ▶ KIROLAK

Rekondok bigarren mailako finalerako sailkapena lortu du

Olano, berriz, txapelketatik kanpo gelditu da; herrialdeko txapelketako finalaren data zehaztekoa dago oraindik

JAIONE ASTIBIA

Jon Rekondo leitzarrak Nafarroako Bigarren Mailako Aizkora Txapelketako finalean egoteko txartela eskuratu du, aste-buru honetan Iturenen jokatu duten kanporaketa saioan. Beste leitzarrak, Olanok, ezin izan zuen bost sailkatuen artean egotea lortu eta kanporatu ta gelditu zen.

13 aizkolarari lehiatu ziren herrialdeko txapelketa horretan

finalerako zeuden bost txartelen bila. Bina kana-erdiko eta 60 ontzako enbor bana ebaki behar izan zituzten eta azkarrenak, beraz, finalerako sailkatu ziren aizkolaria hauek izan ziren, aurrenekotik hasita, hurrenker mantenduz: Juan Telletxea, Luis Mari Belarra, Xabier Mindegia, Jon Rekondo eta Dabid Amillano.

Iaz ere horiek izan ziren finalera joan ziren aizkolaria, Mindegia izan ezik. Hau, aurreneko

mailan baitzegoen orduan; aurtun jaitsi da mailaz. Eguna oraindik zehaztekoa dagoelarik, baina udazkenean jokatu dute finala: garailea mailaz igoko da.

Rekondo «gustura» zegoen sailkapena lortuta: «Bost aurrenekoetan sartzea lortu dugu, eta hori zen orain egin beharrekoa». Laugarren egin zuen leitzarrak. Aurreraxeago bukatzeko aukera izanen zuen, baina «adar bat atera zitzaidan



Rekondo, Kaxetako festan aizkoran; Olano atsedean hartzen. M. SOROA

eta hark atzeratu ninduen», azaldu zion atzo TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZARI. Finaleko arerioen artean Belarra eta Mindegia ikusten ditu bizkorren suenak, arreta berezia eskaini beharrekoak. Edozein moduz, orain, udako erakustaldietan bete-betean sartuta daude, udazkena arte.

SAILKAPENA ▶

NAFARROAKO 2. MAILAKO AIZKORA TXAPELKETA

1. Juan Telletxea (Doneztebe).
2. Luis Mari Belarra (Doneztebe).
3. Xabier Mindegia (Labaien).
4. Jon Rekondo (Leitza).
5. Dabid Amillano (Altsasu).

LEITZA ▶ KIROLAK



Metazirik irabazi du eskolako futbol txapelketa, Steauari luzapenean irabazita

J. Astibia ▶ Metaziri taldeak irabazi zuen eskolako futbol txapelketa larunbat arratsaldean. Steauarekin aurrez aurre, bai emaitzengatik eta bai joko moldeagatik, partidu gogorra jokatu zuten: 4nako berdinketa eginda, luzapena jokatu behar izan zuten. Han, bosnakotik, 6-5 hurrena eta 7-5 izan zen azken emaitza. Metaziriko gazteak gailendu zitzaizkien, beraz, Steauako helduei. Finaleko partidaren aurretik jokatu zuten, bestalde, 3. eta 4. lekuak erabakitzeak, Berastegiko bi taldeen arteko lehia

suertatu zena. Honetakoan, Urepelek irabazi zion Zelairi, partida 5na bukatu eta penaltitako tandan. Txapelketan golik gutxien jaso duen taldea Urepele bera izateagatik ere saria eskuratu zuen taldeak. Golik gehien sartu dituen jokalariren saria, berriz, Joseba Lazkanok jaso zuen. Migel Joakin Iturrarteri ere oroigarria eman zioten, epaile lanetan aritu izana eskertu asmoz. Lehia bukatutakoan, irudian ikusten den moduan, adiskidantzazko giroa berreskuratu zuten. JAIONE ASTIBIA

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

hilberria ▶

Mikaela Amenabarro Iturrioz andrea

Herenegun hil zen, 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
—Goian bego—



Bere anaia: Jose Kruz; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitutz bat eskatzen dizue eta arren etor zaitezte LAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIETAN, UGARTEKO ERROSARIOKO ANDRE MARIA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

UGARTE-AMEZKETAN, 2006ko uztailaren 19an

helbidea ▶ Iurreamendi egoitza
oharra ▶ gorpuz belia Tolosako Funeraria Vascongada Tanatorioan dago,
eguerdiko 12:15ak arte

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▶ 2006ko uztailaren 19a, asteazkena ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA



goizez arratsaldez



beroena **25** hotzera **23**

BIHARKO EGURALDIA



goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
 (zalantzak argitzeko, harpidetan egiteko...)

943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alto. Zikiri jatea egingo dute hilaren 28an, frontoian. Txartelak salgai Arandia jatekxan, 18 eurotan.

Ibarra. San Bartolome Jaietako danborradan ateratzeko bi entseguetara joatea ezinbestekoa da. Gaur 20:00etan haurrentzat eta 21:00etan nagusientzat izango da hirugarren entsegu eguna, Belabietako kiroldegian.

Ibarra. Sanbartolometan Hauspoa elkarteak antolatzen duen herri antzerkian ateratzeko, Alurren dantza lokal zaharrean entsegu, 20:00etan.

Ibarra. Sanbartolometako antolaketaekin bukatzeko asmoz, Festa Batzordearen bilera, 20:00etan, udalbatzar aretoan.

Tolosa. Udaberri dantzari taldeak 2006-07rako umeentzako dantza ikastaroak antolatu ditu. Izen-ematea, Igarondo igerilekuaren ondoan, 17:00etik 20:00etara.

Tolosa. Andorrara irteera antolatu du Alpino Uzturre elkarteak hilaren 22tik 25era, Coma Pedrosa eta Pic de Serrere mendiak igoz.

Izen-ematea, elkartearen (Gudari, 5. 943 65 27 89).

Tolosa. Oargi elkarteak Picos de Europara mendi irteera antolatu du hilaren 22tik 25era. Interesatuak 637 83 03 80 telefonora deitu.

ERAKUSKETAK

Alegia. Miren Ortegaren margolanak. Hilabete osoan, Jubilatuen tabernan.

Hernialde. Gregorio Lopezen lanak, Ostatuan.

Tolosa. Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikini tabernan.

Tolosa. Iñaki Epelde, Jose Luis Longaron eta Carmen Mateo pintore tolosarren margolanak, Errota tabernan.

Zizurkil. Eskultura erakusketa, Olentzon.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

IRRATIA

Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa.
 18:00-19:00. Iraulihinak.
 21:00-22:00. Bide okerretik.
 22:00-23:00. Street noise.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Bero sargoriari aurre egiteko, plisti-plasta

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Ezer egin gabe izerdi patxetan bukatzen den egun horietakoa izan zen atzokoa, aurreko egunen tankerari jarraituz. Eta, horrelakoetan, bainu freskagari batek soilik laguntzen du beroari aurre egiten. Hori pentsatu

dute eskualdeko hainbat herritan, eta igerilekuak jarri dituzte haurrek bainua har dezaten. Argazkiotan agertzen direnak Amezketako gaztetxoak dira: ederki pasatu zuten atzoko eguna fresko-fresko, jolasean, plisti-plasta. L. MONTES

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tartea

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA
 2006 Harpidetza kobraketa kanpaina

ILARAK, FAKTURAK, KOMISIOAK... AHAZTU!

HELBIDERATU ZURE KUOTA

EROSAGOA eta 2 ZATITAN ORDAINTZEKO AUKERA

egunean 0,18 zentimoren truke buzoian